



Ogasun eta Finantza Politikako sailburuordearen Erabakia, 2014ko uztailaren 4koa. Horren bidez, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko 5/2012 Legeko, otsailaren 23ko, 23. artikuluko 1. paragrafoko a) idatz-zatian erreskate-eskubidearen inguruan jasotzen den baliogabetzea interpretatzeko irizpideak aplikatzeko jarraibideak ematen dira.

Konstituzio Auzitegiak 2014ko ekainaren 12an eman zuen 97/2014 Ebazpenak -162. zenbakia duen Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2014ko uztailaren 4an- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko 5/2012 Legeko, otsailaren 23ko, 23.1.a) artikulua konstituzioaren aurkakotzat jo eta bertan behera utzi du.

Segurtasun juridikoa bermatzeko, egintzak kontserbatzeko printzipioa, hala nola orain arte legezkoak eta baliozkoak ziren kontratu-baldintza batzuen araberrako ekarpenak egin dituztenen konfiantza eta fede ona babesteko, bazkideek ebazpena eman aurretik zeuzkaten eskubideak babestea funtsezkotzat jotzen da, eta, ildo horretan, Konstituzio Auzitegiak erreskate-eskubidearen inguruan eman duen ebazpenaren eragina Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik aurrerakoa izango dela interpretatzea, atzeraeragin kaltegarria saihesteko.

Ondorioz, aipatutako ebazpena erreskate-eskubidearekin lotuta eta Ogasun eta Finantza Saileko egitura organiko eta funtzionala finkatzen duen 192/2013 Dekretuan, apirilaren 9koan, xedatutako eskumenen arabera aplikatzeko irizpideak zehaztea beharrezkoa izanik, ondorengo jarraibideak ematea egokitzat jo dugu:


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OGASUN ETA FINANTZA
SAILA
Finantza Politikako eta Erakundeen
Baliabideetako Zuzendaritza
DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS
Política Financiera y Recursos
Institucionales



Lehenengoa.- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko erakundeetako bazkideek prestazio-erregelamenduan erreskate-eskubidea barne hartzen duten gizarte aurreikuspen-planetan –indibidualak edo elkartuak– 2014ko uztailaren 4a baino lehen egindako ekarpenek erreskate-eskubide horri eutsiko diote. Ondorio horietarako, bazkide bakoitzak 2014ko uztailaren 3an, aurreikuspen-plan bakoitzean, esleituta daukan zati proportzionala kuantifikatu beharko dute borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeek.

Bigarrena.- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko erakundeek, indibidualen edo elkartuen modalitateetan, baldin eta prestazioen erregelamenduetan erreskate-eskubidea aurreikusten badute, Ebazpen hau jakinarazi eta hilabeteko epea izango dute horiek guztiak eranskin batean jasotzeko. Eranskin horrek esandako eskubidearen baliogabetzea jaso beharko du, Konstituzio Auzitegiaren 2014ko ekainaren 12ko 97/2014 Epaiari jarraiki 2014ko uztailaren 4tik aurrera, baita aurreko instrukzioan adierazitako egoerak ere.

Hirugarrena.- Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek, indibidualen edo elkartuen modalitateetan, banan-banan jakinarazi beharko diete aurreikuspen-planetako beren bazkideei honakoa:

- Bazkideari egotzitako zati alikuoten zenbakiaren ziurtagiri nominatiboa, aurreikuspen-plan bakoitzean, 2014ko uztailaren 3ko datarekin, zehaztuz adierazitako zati alikuotek eusten diotela erreskate-eskubideari.
- Prestazioen Erregelamenduaren eranskina, aurreko instrukzioan aurreikusitakoari jarraiki idatzita.

Laugarrena.- 2014ko uztailaren 4tik aurrera Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Erregistroan indibidualen edo elkartuen modalitateetako aurreikuspen-plan berrien prestazioen erregelamenduek ezin izango dute erreskate-eskubidea jaso Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek buruzko otsailaren 23ko 5/2012 Legearen 23.1.a) artikuluan zehaztuta bezala.

Bosgarrena.- Ebazpen hau jakinaraziko zaie Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritzako zerbitzburuei, banakako eta kideetako

OGASUN ETA FINANTZA
SAILAFinantza Politikako eta Erakundeen
Baliabideetako Zerbitzura
DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y FINANZAS
Oficina de Cursos
Institucionales



Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei eta Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeen Euskadiko Federazioari. Era berean, Ogasun eta Finantza Saila honen webgunean ere argitaratuko da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailak 4.

Sin.: Juan Miguel Bilbao Garay
OGASUNEKO ETA FINANTZA POLITIKAKO SAILBURUORDEA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA

Finantza Politikako eta Erakundeen
Gaitasunak Zuzendaritza
POLITIKAKO SAILBURUORDEA
Política Financiera y Recursos
Institucionales